

## **ALDEZ AURREKO KONTSULTAREN IRAGARKIA UDALAREN WEB ATARIAN**

### **Serantes mendiaren inguruan ibilgailu motordunen sarrera, zirkulazioa eta aparkalekua arautzen duen ordenantza onartzeari buruzko aurretiatzko kontsulta.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritakoaren arabera, herritarren parte-hartzea hobetu nahi du arauak egiteko prozeduran, dagokion administrazioaren web-atariaren bidez herri-kontsulta publikoa eginez.

Kasu honetan, Serantes mendiaren inguruan ibilgailu motordunen sarbidea, zirkulazioa eta aparkatzea arautzen duen ordenantzaren proiektua egin aurretik, kontsulta publikoa egiten ari da, etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsonen eta erakundeen iritzia jasotzeko, gai hauei buruz:

A.- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Ordenantza bat onartuta, asmoa da hala ingurua nola lurren titularren eskubideak eta ondasunak eta oinezkoen eta gainerako erabiltzaileen eskubideak errespetatzen saiatzea, pertsonen eta ekosistema naturalei beharrezkoak ez diren arrisku, kalte edo eragozpenik ez eragiteko.

B.- Onartzeko beharra eta egokitasuna.

Serantes mendia osatzen duen naturagunean ibilgailu motordunak erabiltzeko dauden aukeren bidez egiten diren jarduerak arautzen lagunduko duen ordenantza onartzeko beharra eta aukera ikusi da.

C.- Arauaren helburuak.

Arauketa horri ekiteko helburu nagusia arau objektibo batzuk eta aipatu naturagunera ibilgailu motordunak modu ordenatu eta errespetuzkoan sartzea lortzeko prozedura ezartzea da, inguruan bizi diren pertsonen eskubideak, lurren edo beste eskubide erreal batzuen titulartasuna eta ibilgailu horiek sartzea eskatzen duten jarduera zehatzak errespetatuz, hori guztia modu seguru eta ordenatuan.

D.- Egon daitezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak. Aztergai dugun gaia Ordenantza bidez arautu behar da, hartzaile anitz dituelako.

Udalerrian ez dago zerbitzu horren erregulaziorik, eta, beraz, ulertzen da hori arautuko duen erregelamendu bat ezarri behar dela ibilgailu motordunak Serantes mendiaren ingurura behar bezala iristeko, zirkulatzeko eta aparkatzeko.

Azaldutako guztia oinarri hartuta, santurtziarrek eta hala nahi duten erakunde eta elkarteek planteatutako alderdiei buruzko iritziak helaraz ditzakete, **2020ko urriaren 20ra arte**, posta elektronikoko bidez: [policialocal@santurtzi.eus](mailto:policialocal@santurtzi.eus)

**Datuen babesa:**

Santurtziko Udalak, Datuen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, otsailaren 25eko 2/2004 Euskal Legea eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) betez, jakinarazten du lortutako datu pertsonalak Udalaren datu-fitxategietan tratatuko direla, udal-kudeaketari dagozkion zereginak bere eskumenen esparruan egiteko.

Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, izapidetzeak berak hala eskatzen duenean edo pertsonak berariaz baimentzen duenean izan ezik. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu. Horretarako, idatziz jo behar duzu Udaleko Erregistro Orokorrera.

## **ANUNCIO DE CONSULTA PREVIA EN EL PORTAL WEB DEL AYUNTAMIENTO**

### **Consulta previa sobre aprobación de la Ordenanza reguladora del acceso, circulación y estacionamiento de vehículos a motor en el entorno del Monte Serantes.**

De conformidad con lo previsto en el art. 133 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo común de las Administraciones Públicas, se pretende mejorar la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas, mediante la consulta pública popular a través del portal web de la Administración en cuestión.

En el presente caso, con carácter previo a la elaboración del proyecto de la Ordenanza reguladora del acceso, circulación y estacionamiento de vehículos a motor en el entorno del Monte Serantes, se sustancia consulta pública a los efectos de recabar la opinión de las personas y de las organizaciones potencialmente afectadas por la futura norma acerca de:

A.- Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.

Con la aprobación de una ordenanza la intención es procurar el respeto tanto el medio como los bienes y derechos de los titulares de los terrenos y los derechos de los peatones y demás usuarios, de forma que no se cause peligro, perjuicios o molestias innecesarias a las personas y a los ecosistemas naturales

B.- La necesidad y oportunidad de su aprobación.

Se ha observado la necesidad y oportunidad de aprobar una Ordenanza que ayude a regular las diversas actividades que se realicen a través de las distintas posibilidades de manejo de vehículos motorizados en el espacio natural que conforma el Monte Serantes.

C.- Los objetivos de la norma.

El principal objetivo de acometer esta regulación es establecer unas reglas objetivas y el procedimiento para conseguir un acceso ordenado y respetuoso de vehículos a motor al citado espacio natural, respetando los derechos de personas residentes en sus inmediaciones, la titularidad de terrenos u otros derechos reales y las actividades concretas que requieran del acceso de tales vehículos, todo ello de una forma segura y ordenada.

D.- Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

La cuestión que nos ocupa procede ser regulada por Ordenanza porque tiene como destinatarios a una pluralidad de personas.

No existe una regulación de este Servicio en el municipio, por lo que se entiende que para un correcto y ordenado acceso, circulación y estacionamiento de vehículos a motor al entorno del Monte Serantes requiere la implementación de un reglamento que lo regule.

En base a todo lo expuesto, los y las santurtziarras así como organizaciones y asociaciones que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados, hasta el **20 de octubre de 2020** a través de correo electrónico: [policialocal@santurtzi.eus](mailto:policialocal@santurtzi.eus)

**Protección de datos:**

El Ayuntamiento de Santurtzi, en cumplimiento de la L.O. 15/1999 sobre Protección de Datos, la Ley Vasca 2/2004 del 25 de febrero así como el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016, informa que los datos personales obtenidos serán tratados en los ficheros de datos del Ayuntamiento con la finalidad de realizar las tareas propias de la gestión municipal en el ámbito de sus competencias.

No se cederán datos a terceras partes, excepto cuando lo requiera la propia tramitación o la persona autorice expresamente. Puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, dirigiéndose por escrito al Registro General del Ayuntamiento.